

Irudia



## Jauregik jaso du ikasturteko lehen saria

Berbalagunek ikasturteko lehenengo Ezetz Jakin lehiaketako saria banatu du, eta Aritz Jauregi muxikarrak eraman du azaroko saria Sakone Tabernaren eskutik. Atzo goizean jaso zuen saria Kultur Etxean. Gernika-Lumoko Berbalaguneko arduradunek esan dutenez, azaroen 63 pertsonak parte hartu dute lehiaketan, eta denek erantzun dituzte galdera guztiak zuzen; Euskaraldia aitzakia hartuta, euskarari buruzkoak izan dira galdera asko eta asko. Abenduko lehiaketa prest daukate, eta ez da gai jakin bati buruzkoa. Besteren artean, bizkaiera, pinuen gaixotasuna eta esaera zaharrak landuko ditu. Sasoie Jatetxean bi laguntzako jatordua zozkatuko dute horretan, ANE MARURI

## Errefuxiatuen egoera salatuko dute domekan egingo duten agerraldian

-A.M.A.

Busturialdea Harrera Eskualdea dinamizak deituta, migrazioaren arrazoiak azaltzeko eta errefuxiatuen egoera salatuzko agerraldia egingo dute domekan, Gernikako Arbolan; Batzarretxe ondoan.

Busturialdea Harrera Eskualdea dinamizaren arduradunek aurreratu dutenez, errefuxiatuez gain, Gernika-Lumoko bonbardaketaren lekukoak eta lobek parte hartuko dute ekitaldian.

Bertan, udalerrira hurbildu diren errefuxiatuak zergatik etorri diren eta bizi izan dituzten eta oraindik ere bizi dituzten egoeren berri emango dute. «Lanean ibili gara, eta asistentzia ematek harago, bizitza autonomoa egiteko baliabideak eskaini diezkiegu Bilbotik heldutako errefuxiatuei», aurreratu dute arduradunek.

## Antimilitarismoa eta memoria historikoa landuko dituzte Astran

-ANEMARURI ARANSOLO

Nazio Batuen Batzar Nagusiek 1948ko abenduaren 10ean onartu zuten Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Hala, astelehenean izan zen 70. urteurrena aitzakia hartuta, antimilitarismoari eta memoria historikoari buruzko jardunaldiak egingo dituzte Astran; astelehenean 16:30etik 19:30era bitartean jarri dute hitzordua.

Gernika Gogoratuz, Gernikatik Mundura, Ideasur, Astra eta Gernika-Lumoko Udalak bultzatu dituzte jardunaldiak, eta lau hitzaldi antolatu dituzte. Denek ala denek, *Giza garapen gehiago eta arma gutxiago* leloagaz bat egingo dute.

Gernika Gogoratuz elkarteak kideek esan dutenez, industria militarrek gerran daukan eragina eta inplikazio maila zein den erantzun egiteko, nazioarteko erakundeak gaiti horri buruz zer eragin beharko luketen ikusiko dute. «Gizateriaren krisi handie-

na den honetan erakundeek agertu beharreko inplikazio maila eta egin beharko litzuzkeen salaketa kanpainak aztertuko ditugu», jakitera eman dute antolatzaileek.

Gainera, gerren aurrean herri-tarrek dituzten aukerak landuko dituzte; hau da, erresistentzia egoera desberdinen eta beldur politikoen aurrean hartu daitezkeen aukera desberdinak aztertuko dituzte hitzaldietan. Horrez gain, mugen segurtasun maila handitzeak eta segurtasun arloan kategoriatuak sortzeko zer erango lukeen ikusiko dutela aurreratu dute.

Bi saiotan banatuta

Bitan banatuko dute asteleheneko jardunaldia, modu horretan «eztabaidagaiak hobeto lantzeko eta solasaldi horizontala bideratzeko». Lehenengoa Jokin Alberdi Gernikatik Mundura elkarteak kideak zuzenduko du, eta bertan egongo dira Luis Arbide

Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformako kidea eta Mertzela Relano Unicefeko zuzendaria Yememen. Arabia Saudiko armen komertzioaz eta nazioarteko erakundearen zereginaz ariko dira, hurrenez hurren.

Bigarren saioa, berriz, Maria Oianguren Gernika Gogoratuz elkarteak kidea zuzenduko du. Bartelonako Delas Bakearen Ikasketen Zentroko ikertzaile Nora Mirallesek parte hartuko du bertan, eta militarizazioaz ariko da. Madrilgo Fuhemeko arlo ekosozialeko ikertzaile Nuria del Viso ere egongo da Astrako bigarren saioan, eta lurren arteko mugez eta aldaketa klimatikoaz berba egingo du bertaratu-takoekin.

Jardunaldietara joan ahal izateko, beharrezkoa da parte hartzea baieztatzea. Horretarako, ondorengo helbide elektronikora idatzi beharko dute interesa daukatenean: [info@gernikagogoratuz.org](mailto:info@gernikagogoratuz.org).

## Metal Fabrikaren denboraldiko bigarren saioa hartuko du Astrak, zapatuan

-AINTZINA MONASTERIO  
MAGUREGI

Urtea amaitu aurretik beste metal dosi batez dator Metal Fabrika. Hardcore eta metalcore doinuak jorratuko dituzte hirugarren denboraldiko bigarren kontzertuan.

Zapatuan Astran jarri dute hitzordua. Gasteizko Fears Awayk kaleratu berri duen *Beyonds Reflections* aurkeztuko du. Bere musikan hardcore *old school*-etik metalcoretik melodikoenera doazen doinuak aurkitu daitezke, eta gogotsu datoz lan berria aurkeztera.

Ondarroako Üther-ek fastcore gordin eta azkarra ekarriko du Astrara, eta Bilbotik etorritako Alli Need taldeak bere musikan intentsitatea, melodia eta amorrua maisuki nahasteko gai direla erakutsiko dute.

Halaber, metal musika momentuoro mantentzeko ardura etxeko DJ Welderen esku egongo da beste behin.

21:00etan hasiko da metal hotsa. Sarrerak 6 euro balio ditu.

## M8ko greba prestatzeko asanblada deitu du Sare Feministak

-A.M.M.

Euskal Herriko mugimendu feministak irailean batzarra egin zuen Gasteizen, eta 2019ko Emakumeen Nazioarteko Egunerako 24 orduko greba deituko zutela iragarri zuten. Gernika-Lumoko Sare Feministak deituta, Martxoaren 8ko *Emakumeok planto!* greba prestatzen hasteko asanblada irekia egingo dute Astran, zapatuan. 11:00etan elkartuko dira.

Hain zuzen, aurtengo Martxoaren 8a mugarria izan zen udalerrian, eta orduan ikusitako erantzunetik Gernika-Lumoko Sare Feminista gertu zuten ekainean. M8ko ekitaldiak asanbladen bidez prestatu zituzten, norbanako eta eragileak batuz.